

Hogei urte, eta lehengo lepotik burua

Koldo SAGASTI

Hogei urte bete berri dira orrialde hauetan idazten hasi nintzenetik. Carlos Gardel-ek esaten zuen ez direla ezer; Victor Jarak, berriz, bizitza betierekoa dela bost minututan. Hortaz, hogei urte, atera kontuak! 2005eko urtarrilean izan zen. Palestinan presidentetzarako hauteskundeak ziren, eta ni prozesuan begirale lanetan parte hartzekoa nintzen, munduko beste boluntario asko bezala. Orduan, bidaiaren kronika batzuk idazteko prestutasuna agertu nion hedabide honi, eta baietz. Garai hartan ordenagailu eramangarriak ere ez neukan, eta gogoratzen dut hauteskunde gauean Ramallahko lokutorio publiko batean aritu nintzela, ordu txikiak arte,

Mahmoud Abbasen garaipenaz lerro batzuk idazten. Irakurri nahiko nituzke gaur. Orduko haietan Hamas eta Palestinako Askapenerako Herri Frontea ez ziren aurkeztu, Osloko akordioak onartu ezean, ez zielako euren parte hartzeaz bozketa horiei zilegitasun bermerik eman nahi. Baina hurrengo urtekoetan, Legebiltzarrerako hauteskundeetan, bai, aurkeztu ziren, eta Hamas izan zen irabazle argia. Eta, ordainetan, Israelgo erregimen kolonialak estatu kolpe bat eman zuen Zisjordanian, eta zigor kolektiboa ezarri zion Gazari, bi hamarkada geroago irauten duen setioa, arduragabekiaz bozkatzegatik. Geroztik ez da berriro hauteskunderik izan Palestinan. Eta azkenengo haietan garaile atera zen

Lehen Ministro legitimoa, Ismail Haniye, iragan uztailean exekutatu zuen Israel-ek, Teheranen, haren hiru seme eta hiru biloba garbitu ostean. Eta haiekin batera milaka eta milaka ezabatu dituzte mapatik bi hamarkadatan, iragarritako garbiketa etniko baten baitan. Zerbait argi geratu bazait idatzizko kolaborazioetako hogei urte hauetan, zera da, ez dela munduan eragilerik zoramen genozida hau geldiarazteko borondatea eta baliabideak dituenik. Borondatea daukagunok milioika gara, baliabiderik ez, ordea. Baliabideak dauzkaten gutxiek, aldiz, borondaterik ez. Eta beste gauza bat ere argi geratu da, hogei urte pasata ere, ezin diodala utzi Palestinari buruz idazteari. •

Benito, eta gure beste orakuluak

Asier ALESTARAN

Asko estimatzen dut adineko jendeak gauzak esateko duen soiltasuna, sinpletasuna. Baina kontzeptuaren adierarik onenean: inguruko zaratak ahaztu eta une bakoitzean gertatzen den horren muinera jotzeko gaitasuna. Grazia egiten zidan, adibidez, GARA-NAIZi ordainarazi zioten hiru milioi euro pasako zorraren kariatara, herriz herri egin ziren bileretara inguratzen ziren pertsona zaharrenek –batez besteko adina altua zela kontuan hartuz– nola galdetzen zuten zuzenean: «Zer behar duzue? Zenbat jarri behar da?». Gu aurrera begirako plan landu bat azaldu nahian joaten ginen, baina haiek nahiago izaten zuten funtsari hasieratik heldu. Gu-

re surflari ernegatuak ederki deskribatu izan du filosofia hori. Esku bat bota behar denean bi aldiz pentsatu gabe laguntza eskaini. Galderak, baldin badaude, etorriko dira gero. Burutazio hauek izan ditut aurreko igandean 7Kn argitaratutako Benito Lertxundiren elkarrizketa irakurtzen amaitu berritan –NAIZ Irratian ere entzungai du nahi duenak–. Jenio batek bakarrik bota ditzake «askatasuna da gauzarik sakonena» edota «ni inoxidablea naiz» bezalako sententzia itxuraz sinpleak, nahiz eta mami asko egon atzean. Euskarari buruz egiten duen hausnarketa ere benetan interesgarria iruditut zait, nagusitzen ari diren hainbat korrontetatik aldenduz: «Sortzen dira ha-

lako figura bereziak, hizkuntzak egiten gaituela herri, eta gisakoak. Alderantziz da: herriak egiten du hizkuntza. Hizkuntza herriaren ondare bat da eta ez alderantziz». Nik ere halaxe ikusten dut, baina nekez asmatuko nuke zehaztasun horrekin azaltzen. Soiltasuna izan bailiteke, edertasunaren bilaketarekin batera, Benitoren abestietako ezaugarri nagusietako bat. Baina zertarako luzatu ni, Benitok berak horren argi esan badu: «Beste batzuetan etorriko dira gauza barrokoekin, kultuzkoekin, su artifizialekin. Baina ez dute deus esaten. *Artilugio* guztiak behar dituzte. Beste batek, aldiz, borda batetik keinu bat xume-xume bidaltzen dizu, eta mendez mende irauten du». •